



**borrokatu
dantzatu**

DA?

DU?

DUDA

DADU



BORROKATU

DA

Borroka egin

- Labana-ukaldika **borrokatu ziren**.

*Labana-ukaldika borrokatu zuten.

- Euri-oihanetako zuhaitzak eta aihenak bezala, koralak etengabe **borrokatzen dira** argia eta espazioa eskuratzeko.


Manuel C. Molles: *Ekologia. Kontzeptuak eta aplikazioak*, EHU, 2011. Euskaratzaileak: Maitane Arizti; Ane Goenaga.

DU

Buru egin; menderatu

- Artzain batek omen zeukan zakur indartsuren bat, otsoak ere **borrokatzen zituena**.

Juan Ignazio Iztueta: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, 1847.





DANTZATU

DA

Dantzan egin.

- Denbora guztian berarekin **dantzatu nintzen**.
*...berarekin dantzatu nuen.

- [Dantzariak] Ikatz gorien gainean **dantzatu ziren** batere minik gabe.

Wade Davis: *Argia munduaren ertzean*, EHU, 2009. Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta.

DU

Dantza jakin bat, esaterako.

- Ohorezko aureskua **dantzatu zuen** udaletxe atarian.

(Beh.) Eragin, mugitu, astindu.

- Makila **dantzatu zuen** besteren hezurretan.



Bestalde, oso erabiliak dira honako aditz-lokuzio hauek ere (**DU** sailekoak dira egiturok):



BORROKA EGIN **DU**

- Borroka egin dezagun zulotik ateratzeko!

DANTZA EGIN **DU**

- (...) erleek dantza egin zuten, nektarrez beteriko txalupa non zegoen adierazteko.

Marc D. Hauser: *Gogo basatiak*, EHU, 2008.
Euskaratzailea: Irene Aldasoro

BORROKAN EGIN **DU**

- Elkarrekin borrokan egin zuten.

DANTZAN EGIN **DU**

- Dantzan egin genuen gau beranduan.



Zenbait aditzen erregimena lantzen da honako fitxa hauetan ere:

- Zenbait aditzen erregimena (I): biratu, kostatu, iraun, deitu...
- jokatu / jolastu

